



ESKAERA

2024ko Otxomaioiko lehen asteburuaren balorazioa eginda, AIARALDEKO EUSKALGINTZAREN KONTSEILUA ELKARTEaren izenean (G-01545599), idatzi hau aurkezteko beharra ikusten dugu.

AZALTZEN DUGU:

Gora Aiaraldeko Jai Euskaldunak! ekimenaren aurkezpena babesten izan ginen apirilaren 25ean Arespaldintzan eskualdeko 6 udalerrirekin batera, tartean zelarik Urduñako Udala. Izan ere, ekimena azken urteotan Urduñako Udalak jaien inguruan euskara bultzatzeko neurrietan oinarritu da, zeintzuk Aiaraldeko Euskalgintza Kontseiluak eredugarritzat jo baitituen. Oso positiboki baloratzen dugu baita eskualdeko ekimenarekin bat eginez Urduñako Udalak eman dituen pausu berriak, adibidez Euskararen Semaforoaren erabilera.

Ekimenaren baitan, **txosnetarako hizkuntz irizpide** zehatzak jasotzen dira, zeintzuk jada azken urteotan Urduñan indarrean egon diren. Horietako batek, txosnaguneko **musikaren %65a euskaraz** izan behar duela azaltzen du. Txosnagunean musika bateratua ezarri aldera, txosna bakoitzak 50 kantu aukeratzen ditu eta zerrenda bateratu batean txertatzen dira. %65ko eskaera gainditu egiten da, txosna guztiak, bat kenduta, askoz portzentaje handiagoan aukeratzen baititugu euskarazko kantuak. Hautu hori egiten ez duen txosna Bihotza Konpartsakoa da zeinen, kantu guztiak erdarazkoak baitira. Aipatu kantuen bilduma bateratuak, berdintasun teknikariaren galbahea pasatzen du. Argitu beharra dago, txosna guztiek musika bera izateko baliabide teknikoak



jartzen direla, eta hauek baliatuz, txosna guztiek, bat kenduta, musika berdina dutela.

Horregatik, **salatu nahi dugu**, Otxomaioiko lehen asteburuan **Bihotza Konpartsak txosna jartzeko araudian musikarako ezartzen den irizpidea sistematikoki eta nahita urratu duela** etengabe, txosna guztien artean hautatutako musikara konektatzeko baliabideak eskaini arren, lotura egiteari nahita uko egin eta beren musika ekipoarekin **soilik erdarazko musika jarri dutelako, euskara erabat baztertuz**. Bihotza Konpartsak egin duena egiteko ez du aitzakiarik, hautu kontzientea izan da, nahita uko egin baitiote arautegia betetzeari eta nahita eta kontzienteki baztertzen baitute erabat euskara. Aiaraaldeko Euskalgintza Kontseiluak jarrera hau oso larrizat eta euskararen aurkakoa du. Azpimarratu behar da Udalak jaietan euskara bultzatzeko hartu dituen neurrien aurka joatea dela erabat, eta *Gora Aiaraaldeko jai Euskaldunak!* ekimenak ekarri duen dinamika berria eta zentzu horretan Urduñako Udalak erakutsi duen eredugarritasuna kaltetzen duela zuzenean. Hori dela eta, Bihotza Konpartsaren **jarrera onartezina** dela deritzogu.

ESKATZEN DUGU:

Egoera honen aurrean **Urduñako Udalari eskatzen diogu Bihotza Konpartsako arduradunei txosna araudia betetzea eskatzeko eta araudia urratzen jarraitzen badute txosna irekitzeko baimena ukatzeko**. Araudiaren urraketa jarraitua eta kontzientea izan da jaietako lehen asteburuan, hori zuzentzea eskatzen dugu, ez baita zilegi horrelako jarrera baztertzaileak gure hizkuntzarekiko, areago eremu publiko batean.



AIARALDEKO EUSKALGINTZA

KONTSEILUA



2024/05/06

Bukatzeko, Aiaraldeko Euskalgintza Kontseiluak egoera hau publiko egingo du, gardentasuna eta herritarrak informatzea berebizikoa iruditzen baitzaigu gure jardunean.

Egoera nabarmena eta larria denez, neurriak lehen bai lehen hartu eta horren berri izango dugulakoan, aldez aurretik eskerrak emanez, agurtzen zaituztegu,

Urduñan, 2024ko maiatzaren 6an